

HUHEZIk lagundu egin du euskaratzen MacArthur proiektuaren atal bat

2009/11/02

HUHEZIk ikertzaile talde batek --Iñaki Garcia, Julia Barnes, Nagore Ipiña eta Nekane Arratibel-- euskarara egokitu du, beste zenbait unibertsitatetako ikertzaileekin batera, MacArthur proiektuaren Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda.

Zehatzago esanda, taldeak euskaratu ditu **CDI-1 eta CDI-2 testak**, jatorriz Ameriketako Estatu Batuetan sortu zirenak. Test horiek neurtzen dute komunikazio gaitasuna 8-30 hilabete tarteko haurren artean.



Urrats bat gehiago

MacArthur proiektuaren euskal adarrak tresnak sortu nahi ditu neurtzeko haur euskaldunek zelako komunikazio garapena duten. Hori dela-eta, asmoa du haurren adin tartea zabaltzeko, eta **galdetegi bat diseinatu du neurtzeko komunikazio garapena 30-44 hilabete tarteko haurren artean**. Egun hauetan, hain zuzen proba pilotu bat egiten ari da, eta galdetegia bidali die zenbait gurasori, bertako galderak erantzun ditzatela eskatuz.

Partaideak

HUHEZI ez dabil bakarrik MacArthur proiektuan, beste hainbat erakunderekin ari baita elkarlanean: Salamanca Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea. MacArthur proiektua Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen, ingelesez. Test horrek neurtu nahi du, gurasoen informazioan oinarriturik, hizkuntzaren garapen goiztiarra, aurreikusteko umeei zer atzerapen izan dezaketen hizkuntza-garapenean eta neurri egokiak hartuta, ekiditeko atzerapenek ekar ditzaketen kalteak.